



ALDEZ AURREKO KONTSULTA FORU GOBERNU KONTSEILUAREN FORU
DEKRETU PROIEKTUAZ, HAIN ZUZEN, BASOGINTZARAKO MAKINAK EROSTEKO
LAGUNTZEN OINARRI ARAUTZAILEAK FINKATZEN DITUENAZ

Maiatzaren 23ko 29/2017 Foru Dekretuak, xedapen orokorrak egiteko prozedura eta araugintza teknikari buruzko jarraibideak onesten dituenak, I. eranskineko 9. artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik, eta xedapen arauemaileak prestatzeko prozeduran herritarren parte-hartzea hobetzeko helburuz, goiburuan aipatutako proiektua prestatu aurretik kontsulta publikoa egin behar da; kontsulta horretan iritzia azaltzeko eskatu behar zaie etorkizuneko arauaren eragina jaso lezaketen herritarrei eta ordezkariatasun handieneko erakundeei, honako gai hauek direla eta:

- a) Ekimen horrekin zer arazo konpondu nahi den.
- b) Ekimen hori onesteko beharra eta egokitasuna.
- c) Arauaren helburuak.
- d) Ordezko konponbideak, araugintzazkoak zein araugintzaz bestekoak.

Aurrekoa betez, kontsulta bat planteatzen da, Arabako Lurralde Historikoan fruta landaketak egiteko laguntzak ematea arautzeko arau esparrua ezarri behar duen etorkizuneko xedapenaren eragina jaso lezaketen herritarrei eta ordezkariatasuna duten erakundeei beren iritzia azal dezaten eskatzeko.

Herritar, erakunde zein elkarteek, egoki baderitzote, galdera sorta honetan planteatutako alderdiei buruz duten iritzia adierazi ahal izango dute, **8 egun naturaletan**, *aurrezkontsultak@araba.eus* helbide elektronikoko postontziaren bidez.



AURREKARIAK	Laguntza lerro berri bat da, lehen araututa ez zegoena.
KONPONDU NAHI DIREN ARAZOAK	Sustatzea basogintzako enpresa txiki eta ertainek basogintzarako makinak erosten egiten dituzten inbertsioak, teknologia berriko lanabes eta tresna modernoagoak dituzten makinaren parkea berritze aldera, eta, horrela, lanak errazago eta era seguruagoan egite aldera.
HURA ONESTEKO BEHARRA ETA EGOKITASUNA	<p>Beharrezkoa da Arabako Lurralde Historikoko mendiak kontserbatzeko eta hobetzeko, horien titularrak enpresa espezializatuak kontratatu behar dituztenean egurra ateratzeko eta mendia behar bezala kontserbatzeko eta mantentzeko. Mendiek onura ugari sortzen dute, behar den lehengaia ematen baitute produktu berriztagarriak eta ingurumenarekiko begirunetsuagoak egiteko eta eginkizun garrantzitsua baitute ongizate ekonomikoaren, dibertsitate biologikoaren, karbonoaren ziklo orokorraren, oreka hidrológicoaren, higaduraren kontrolaren eta hondamendi naturalen prebentzioaren arloan. Gainera, gizarte eta aisia eginkizuna ere betetzen dute.</p> <p>Bestalde, beharrezkoa da egurra mobilizatzeko gaitasuna hobetzea eta lehengai gisa erabiltzeko babesak eta bultzada ematea, sektore honen lehiakortasuna handitzeko.</p>
HELBURUAK	Sustapena egitea Arabako Lurralde Historikoko mendietan lan egiten duten basogintzarako makinaren parkea berritzeko, makina horien kudeaketa eta errentagarritasun hobetzeko.
ORDEZKO	KONPONBIDEAK, Ez dago beste irtenbide egokirik mota honetako



Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Álava

xxx
xxx Saila
Departamento de xxx
xxx

ARAUGINTZAZKOAK ARAUGINTZAZ BESTEKOAK	ZEIN	inbertsioak sustatzeko.
--	------	-------------------------